

# ESKORIATZAKO UDAL KIROL ZERBITZUKO ARAUDIA

- 1) Araudiaren sarrera orokorra.
  1. Araudiaren xedea.
  2. Araudi honen gaineratik dauden legeak.
  3. Eragin-esparrua.
  4. Arau orokorrak.
  
- 2) Erabiltzaile mota.
  1. Norbanakoak: abonatuak, eguneko erabiltzaileak eta jardueretan parte hartzen dutenak.
  2. Kirol entitateak.
  3. Ikastetxeak eta unibertsitatea.
  4. Bestelako entitateak.
  5. Ikusleak.
  
- 3) Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.
  1. Erabiltzaileen eskubideak.
  2. Erabiltzaileen betebeharrak.
  
- 4) Udal instalazioen erabilera.
  - 1 Udal kirol instalazio guztietarako erabilera arau orokorrak.
  - 2 Udal pilotalekuetako erabilera arauak.
  - 3 Manuel Muñoz kiroldegiko erabilera arauak.
    - 3.1 Erabilera anitzeko kantxa.
    - 3.2 Minipilotalekuak.
    - 3.3 Igerileku guneko gimnasioa.
    - 3.4 Fitness aretoa: tonifikazioa eta kardiobaskularra.
    - 3.5 Gimnasio nagusia.
    - 3.6 Sauna eta lurrun sauna.
    - 3.7 Ur eremua.
  
- 5) Udal kirol zerbitzuak.
  1. Abonuak.
  2. Jarduerak eta ikastaroak.
  3. Pistak, pilotalekuak eta kantxak alokatu eta erreserbatzea.
  
- 6) Azken xedapenak.
  
- 7) Erreklamazio orriak.

## 1) ARAUDIAREN SARRERA OROKORRA.

Eskoriatzako Udalaren helburu nagusia, udal kirol zerbitzuaren bitartez (aurrerantzean, UKZ), jolas eta kirol jarduerak, eta orokorrean, edozeinek egin nahi duen kirol jarduerak, babestea, sustatzea eta garatzea da.

Udal kirol instalazioak dira kirola egiteko, jarduera ludikoetarako eta, oro har, kultura fisikorako Udalak dituen eraikin, zelai, esparru eta areto guztiak. Horrelakotzat joko dira, halaber, helburu bera duten ondasun mugikorrek eta udal kirol instalazioen bati modu iraunkorrean atxikitakoak.

Udal kirol instalazioan ezaugarriak bat datoz aipatutako helburu eta xedeekin. Hori dela-eta, eskaintzen duten zerbitzua eta beraien erregelamendu praktikoa honako printzipio hauetan oinarritu behar dira.

- Herritarrek erabiltzeko dira, nagusiki.
- Eskoriatzan egiten diren kirol jarduerak bultzatzea, eta indar eta ekimen guztiak ikuspegi bateratu batetik koordinatzea.
- Gizarte sustapena eragitea.
- Irabazi asmorik gabea, baina, autofinantzazioa lortzeko helburuarekin.
- Heziketa, kultura, irakaskuntza, laguntza eta osasun helburuak izatea herritarren artean sedentariismoa murriztu eta herritar osasuntsu, aktiboak eta parte hartzaileak bihurtzeko.
- Instalazioetan egin daitezkeen kirol-modalitate guztiek lekua izatea.

Udal kirol instalazioak jendearentzako zabalik egongo dira, eta edozein herritarrek horietara jo eta erabili ahal izango ditu, betiere, indarrean dagoen araudiaren arabera eta dagokion udal tasa ordaindu ondoren.

Instalazio bakoitza zein kiroletarako den, horiek egin ahal izango dira bertan. Beste kirol eta jarduera batzuk ere egin ahal izango dira, betiere, teknikoki egin ahal badira eta

udal kirol zerbitzuak aurrez horretarako baimena ematen badu. Udal kirol zerbitzuaren esku egongo da baimena eman edo ukatzea.

Udal kirol instalazioak ikastetxeek bideratzen dituzten kirol jardueretarako, aisialdikoetarako eta lehiaketetakoetarako erabili ahal izango dira, eta, inoiz, kasu bakoitzerako ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarte izaerako jardueretarako ere bai.

Udal kirol zerbitzuak, organo eskudunaren bidez, eskubidea izango du araudi honetan ezarritakoa argitzeko, aldatzeko edo garatzeko xedapenak edo erabakiak emateko instalazioak zuzen erabili daitezten, betiere, instalazio horietako langileen oharren eta aginduen kaltetan gabe.

Gidalerro horiek kontuan izanik, **ESKORIATZAKO UDAL KIROL ZERBITZUKO ARAUDIA** garatzen da.

#### **1. ARAUDIAREN XEDEA.**

Araudi honen xedea da udal kirol zerbitzuen erabiltzaile-motak eta beraien eskubide eta betebeharrak arautzea, eta baita udal kirol instalazioak eta udalak eskaintzen dituen kirol zerbitzuak erabiltzeko baldintzak ere.

#### **2. ARAUDI HONEN GAINETIK DAUDEN LEGEAK.**

Araudi honetan ezarritako interpretatzerakoan sor daitekeen edozein zalantza goragoko lerruneko araudiak edo legediak erabakiko du.

#### **3. ERAGIN-ESPARRUA.**

Araudi hau udal kirol zerbitzura lotutako instalazio eta udal zerbitzuetan aplikatuko da.

#### **4. ARAU OROKORRAK.**

- **ADINA.** Araudi honetan adina aintzat hartutakoan edo adinen bat aipatutakoan, ulertu beharko da erabiltzaileak adin hori izango duela urteak betetzen dituen hileko lehen egunean; ikastaroei dagokienean izan ezik, horietan urte horretan izango duen adina hartuko baita kontuan.

- **ARAUDIA BETETZEA.** Udalak, instalazioetako arduradunen eta langileen bidez, araudia hau bete dadin begiratuko du. Gainera, zerbitzuak bertan behera uzteko ahalmena izango du honako kasu hauetan:
  1. Instalazioak hondatzeko arrisku dagoenean.
  2. Erabiltzaileen osotasun fisikoa arriskuan dagoenean.
  3. Baldintzak meteorologikoak eta instalazioetakoak txarrak direnean.
  4. Interes kolektiboak edo aurrez hartutako konpromisoak daudenean.
  5. Hala egitea eskatzen duten beste arrazoi batzuegatik.
  
- **ARAUDIA BETEARAZTEA.** Udalak, instalazioetako arduradunen eta langileen bidez, ahalmena du araudi honetako arauen bat behin eta berriz betetzen ez duten pertsonen sarrera debekatzeko edo instalazioetatik kalera botatzeko.
  
- **ARAUDIA ONARTZEA.** Instalazioak edo zerbitzuak erabiltzeak araudi hau onartzea dakar.
  
- **ORDUTEGIAK ETA EGUTEGIAK.** Udalak ezarriko ditu instalazioak eta zerbitzuak ireki eta ixteko egunak eta orduak. Arau orokor bezala, ezin da udal kirol instalazioetan sartu ixteko 30 minutu falta direnean. Instalazioak ixteko orduan kanpoan egon beharko dute erabiltzaile guztiak.
  
- **ISTRIPUAK.** Udala ez da araudi honek araututako instalazioetan jarduera fisikoa egiteagatik sor daitezkeen istripuen erantzule egiten, udal honi egotzi daitezkeen arrazoiengatik gertatutakoaz izan ezik.
  
- **LAPURRETAK ETA GALDUTAKO GAUZAK.** Udala ez da inolaz ere erantzule egingo arropa, diru edo beste edozein gauza lapurtu edo galduz gero. Gauzak galdu dituen edo lapurtu dizkieten pertsona izango da horien erantzule bakarra. Ahaztutako edo galdutako jantziak ez badira lau astetan erreklamatzeko birziklatzera eramango dira. Objektu baliotsuak Udaltzaingora bidaliko dira, galdutako gauzetara. Objektuak edo jantziak erreklamatzeko dituzten pertsonen itzulitako jantzien eta objektuen erregistro liburua sinatu beharko dute.

## 2) ERABILTZAILE MOTAK.

## **Kirol instalazioen erabiltzailearen definizioa.**

Erabiltzailea da udal kirol esparru batera (hemendik aurrera horrelako kirol gune guztiei "kirol instalazioak" deituko diegu) hori erabiltzeko asmoarekin sartzen den oro.

### **1.- NORBANAKOAK: ABONATUAK, EGUNEKO ERABILTZAILEAK ETA JARDUERETAN PARTE HARTZEN DUTENAK.**

- **UDAL KIROL ZERBITZURA ABONATUA**

Abonatua da izena eman, onartua izan eta abonatu txartela duen pertsona oro, betiere, ordenantza fiskaletan ezarritako tasei dagozkien kuoten ordainketa egunean badu.

Ezaugarriak:

- Abonua norbanakoa edo familiarra izan daiteke. Familiarrean 18 urtetik beherako seme-alabak sartzen dira, eta baita 25 urtetik beherakoak ere, langabezian edo ikasten baldin badaude. 6 urtetik beherako seme-alabek ez dute ezer ordaindu behar izango gurasoak abonatuak baldin badira.
- Abonatu txartela pertsonala eta besterenezina izango da.
- Baja eman nahi duen abonatuak kiroldegiko bulegoan jakinarazi beharko du.
- Bazkide txartela titularra ez den beste norbaitek erabiliz gero, hilabeterako kenduko da txartela. Horrela, kontrol eta zaintza egiten duten langileek NANA edo antzeko dokumenturen bat eskatu ahal izango dute.
- Txartela galdu, lapurtu edo hondatuz gero eta berria egin behar izan, horretarako ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko da.
- Kuotak Eskoriatzan bulegoa duten banketxe edo kutxaren batean helbideratu beharko dira derrigorrez. Banku transferentziaren bidez egiteko aukera ere izango da.
- Urte bakoitzeko martxoaren 30a baino lehen ordaindu ez direlako itzuli behar izan diren ordainagirien titularrei baja emango zaie automatikoki.

- **EGUN BATEKO ERABILTZAILEA.**

Dagokion kuota ordaindu ondoren abonatuak erabili ditzaketen zerbitzu berak egun batez erabili ditzakeen pertsona da. Pertsona horrek ordenantza fiskaletan jasotako dagokion tasa ordaindu beharko du, eta tiket bat emango zaio zerbitzu hau erabiltzeko eskubidea ematen duen dokumentu gisa.

- **JARDUERA BATEN IZENA EMAN DUTEN ERABILTZAILEAK EDO KIROL INSTALAZIO BAT ERRESERBATU DUTENAK.**

Jarduera edo ikastaro baten izena eman edo instalazio bat erreserbatu duten pertsonak dira. Horretarako, unean-unean indarrean dauden ordenantza fiskaletan aurreikusitako tasak ordainduko dituzte.

8 urtetik beherako ikastarogileak pertsona laguntzaile batekin sartu ahal izango dira aldagelara. Laguntzailea doan sartuko da, baina haurrari arropa janzten eta eranzen laguntzeko behar den denbora baizik ez du emango bertan. Laguntzaile horiek ezingo dira sartu, inolaz ere, kirol esparruetan, eta ezingo dira zain egon instalazioen sarbideetan.

- **BERAK BAKARRIK ALDAGELETAN ETA INSTALAZIOETAN IBILTZEKO ARAZO BEREZIAK DITUEN ERABILTZAILEAREN LAGUNTZAILEA.**

Premia berezien ondorioz, aldageletan eta kirol instalazioetan euren kabuz bakarrik ibiltzeko arazoak dituzten erabiltzaileen laguntzaileak izango dira, eta baita 8 urtetik beherako umeekin doazenak ere.

Ez dute izango instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko eskubiderik; izan ere, beraien helburu bakarra da bere kabuz eskubide hori erabiltzeko aukera ez duen pertsonen laguntza eskaintzea.

Laguntzailea doan sartu ahal izango da, baina agiri egokiak eskatu ahal izango zaizkio erabiltzailearen eta laguntzailearen arteko laguntza-harremana egiaztatzeko.

## **2.- KIROL ENTITATEAK.**

Legez eraturako kirol klubak (EAE-ko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribaturakoak) joko dira lehiaketa kiroleko ordezkari egoki bakartzat, eta beraiek izango dute entrenamenduetarako, lehiaketetarako eta erakustaldietarako udal instalazioak erabiltzeko aukera, kasu bakoitzean dagokion eskaera egin eta gero.

Kirol erakunde horiek Udalarekin adostutako instalazioa erabiltzeko eskubidea izango dute Udalarekin hitzartutako egun eta orduetan, eta horrek ez dio beste eskubiderik emango jasotako baimenetatik kanpo.

Entrenamenduak egiteko eskaerak urte bakoitzeko ekainaren 15etik uztailaren 15era egin beharko dira.

Aurkeztutako eskaeren, instalazioen ordutegien eta udal kirol zerbitzuaren irizpide teknikoaren arabera emango dira baimenak. Baimenak denboraldi baterako izango dira, eta kirol denboraldia irailaren 1etik hurrengo urteko ekainaren 30era arte joko da.

Ohiko lehiaketa ofizialetako saioetarako ordutegia eta egunak gutxienez hilabete lehenago baieztatu beharko dituzte klubek eta elkarteek, eta udal kirol zerbitzuak 15 egunetako epea izango du eskaera aztertu, eta hala badagokio, ordutegi horiek aldatzeko, aparteko jarduerak egon daitezkeelako edo udal kirol zerbitzuko irizpide teknikoengatik.

Entrenamenduetarako emandako baimena udal kirol zerbitzuak antolatutako edo berak baimendutako ekintzen menpe egongo da, eta ezingo da erreklamatu horrelako arrazoiren bategatik entrenamenduak bertan behera utzi edo lehendik baimendutako ordutegia aldatu behar baldin bada. Hala ere, horrelakoetan gutxienez aste beteko aurrerapenarekin jakinaraziko da.

Kirolari federatuek jarrera egokia izan beharko dute instalazioetan, eta langileen lana erraztu beharko dute. Langileei begirune osoa izan beharko diote une oro, eta beraien aginduak zuzen bete beharko dituzte. Errespetu faltekin eta portaera okerrekin taldea edo taldekideak zigortzea ekar dezakete.

Lehiaketa amaitu eta gero instalazioak libre gelditu beharko dira udal programazioak jarraitzeko.

### **3.- IKASTETXEA.**

Eskoriatzako kirol zerbitzuak instalazio eta ekipamenduen zati handi bat Eskoriatzako ikastetxeen kirol azpiegitura gabeziak orekatzeko erabiliko du.

Eskoriatzako kirol zerbitzuko instalazioek Eskoriatzako ikastetxeetako gorputz-  
hezkuntza eta igeriketa eskolak hartuko dituzte, nagusiki, eskola orduetan.

Ikastetxeetako taldeak beraien hezkuntzaz eta portaeraz ardura izango duen irakasle  
batekin sartu beharko dira instalazioetara.

Ikastetxeei instalazioak lagatzeko irizpideak eta baldintzak urtero ezarriko dira,  
uztailaren 31 baino lehen, udal kirol zerbitzuaren eta ikastetxeen interesak kontuan  
izanik.

Eskola orduetatik kanpoko eskola kirolari ere lagako zaizkio instalazioak, eta  
horretarako baldintzak urtero ezarriko dira eskola kirola denboraldia hasi baino lehen.

#### **4.- BESTELAKO ENTITATEAK.**

Kirol instalazioak noizbait taldeka eta pribatuan erabiltzea gura duten bestelako entitateek  
udal kirol zerbitzuarekin adostutako instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute  
hitzartutako egun eta orduetan, eta ez dute beste erabilera eskubiderik izango emandako  
baimenaz kanpo.

#### **5.- IKUSLEAK.**

Ikusle izango dira kirol ikuskizunen bat edo bestelako ikuskizunen bat ikustera doazenak  
kirol instalazioetara, eta harmailak eta gune horretan dauden zerbitzuak erabiltzeko  
eskubidea izango dute, baina ez gainerako kirol instalazioak erabiltzekoa.

### **3) ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**

#### **1.- ESKUBIDEAK.**



- **Erabilera eskubidea.** Erabiltzaileek Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute, betiere, araudi partikular bakoitzaren arabera, instalazioak edo zerbitzuak erabilgarri baldin badaude, eta erabiltzaileak ez badu instalazioetara sartzeko edo horiek erabiltzeko debeku zigorrik jaso.
- **Arreta eta tratu egokia jasotzeko eskubidea.** Udal langileek eta udalarentzat ari diren langileek tratu egokia izango dute une oro erabiltzaileekin.
- **Hizkuntza eskubidea.** Herritar orok, berak aukeratutako EAEko hizkuntza ofizialean atenditua izateko eskubidea izango du.
- **Erreklamazioak edo iradokizunak egiteko eskubidea.** Erabiltzaile guztiek dute edozein zalantza galdetzeko eta iradokizunak eta erreklamazioak egiteko eskubidea.
- **Zerbitzuei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.** Erabiltzaileek eskubidea dute zerbitzuei eta egon daitezkeen gorabeheri buruzko informazio osoa jasotzeko.

Informazio horretan honako hauek sartzen dira:

- Jendearentzako eskainitako zerbitzuak eta jarduerak.
- Zerbitzuen egutegia eta irekiera eta itxiera ordutegia.
- Indarrean dagoen tasa taula, zerbitzuak erabiltzeko baldintzak barne, hau da, urte horretako ordenantza fiskalak.
- Ordu, kuota mota eta erabilera baldintzetan egon daitezkeen aldaketen berri ematea.
- Zerbitzuetan gorabeherarik edo etenik egonez gero, horien berri ematea.
- Ikastaroetarako eta jarduera puntualetarako deialdiak.

Informazio hori guztiori, gutxienez, Manuel Muñoz kiroldegian jendeari arreta egiteko bulegoan eskainiko da. Gainerako informazio bideak osagarriak izango dira, eta ez Udalak derrigorrez erabili beharrekoak.

## **2.- BETEBEHARRAK.**

- **Arauk betetzea.** Kirol zerbitzuak eta instalazioak erabiltzen dituzten erabiltzaile guztiek bete eta errespetatu beharko dituzte araudi hau eta aplikagarri diren gainerako araudiak. Erabiltzaileek araudi horiek ez ezagutzeak ez ditu salbuesten arauak bete behar izatetik. Horrela, debekatuta daude honako hauek:
  - Beste abonatu baten txartel pertsonal eta besterenezinarekin sartzea instalazioetara.
  - Kirol instalazioetan erretzea, kanpokoetan zein barrukoetan.
  - Aldageletatik kanpo arropak jantztea edo erantztea.

- Jatea edota edatea, horretarako bereziki ezarritako espazioetan eta adierazitako salbuespenetan izan ezik.
- Animaliak sartzea (gida txakurrak izan ezik, indarrean dagoen legediak zehaztutako baldintzetan).
- Publizitatea edo propaganda jartzea Udalaren berariazko baimenik gabe.
- Kirol instalazioetako edozein gunetara beirazko, kristalezko edo metalezko ontziekin sartzea.
- Instalazioetara patinekin, patineteekin, bizikletekin edo beste edozein lokomozio bideekin sartzea eta instalazioetan horiekin ibiltzea.
- Ekipamendua apurtu, erabiltzaileak zauritu, edo horien lasaitasuna eten dezakeen edozein objektu edo elementu sartzea.
- 8 urtetik beherako haurrak pertsona nagusi batek lagundu gabe sartzea. Nagusi horrek une oro lagundu beharko dio haurrari, eta haurrak erregelamendua bete dezan bermatu. Hala ere, debeku hori ez zaie aplikatuko antolatutako ikastaroetan edo jardueretan parte hartzen duten adingabeei. Kasu horietan, araudi honetako beste atal batzuetako arau espezifikoak aplikatuko dira.
- **Norberaren burua identifikatu beharra.** Erabiltzaileek euren burua identifikatu beharko dute udal kirol zerbitzuko langileek horrela eskatutakoan. Erabiltzaileak bere burua identifikatzeari uko eginez gero, udal kirol zerbitzuko langileek instalazioetatik edota zerbitzuetatik kanpora dezakete edo horietara sartzea debekatu.
- **Kontratututako zerbitzuak ordaindu beharra.** Erabiltzaile guztiek ordaindu beharko dituzte zerbitzuei dagozkien tasak, urte horretako ordenantza fiskaletan jasota bezala. Ordaindu gabeko tasekin administrazio eta kobrantza arauetan ezarritakoaren arabera jokatu da.
- **Instalazioak arduraz eta egoki erabili beharra.** Instalazio bakoitza bere xederako erabili beharko du erabiltzaileak. Beste edozein erabileratarako Udalaren baimena izan beharko du aurrez. Edozein kasutan, erabili egokia honako hau da.
  - Kirol jantziak eta oinetakoak erabiltzea, eta aretoetan edo estalitako pistetan horietarako oinetako bereziak, hau da, ez erabiltzea inoiz kanpoko instalazioetan erabiltzen diren oinetakoak edo kaletik jantzita ekarritakoak.
  - Aldageletan derrigorrezkoa da txankletak jantztea adingabekoei dutxatzen laguntzeko.

- Arropa-armairuak (takilak) erabiltzea jarduera egiten dugun bitartean. Instalaziotik irteterakoan hutsik utzi beharko dira derrigorrez. Udalak egunero ireki eta garbituko ditu takilak.
  - Gaikako zaborrontziak zuzen erabili.
  - Instalazioetako espazio eta elementu guztiak komunitarioak dira. Inork ezingo du horien erabilera pribatiborik egin. Ondorioz, araudi honetan jasotzen ez diren egoeretan, instalazioetako langileen aginduak jarraitu beharko dira, eta baliabideak errespetuz eta zentzuz partekatu. Erabiltzaileak izango dira instalazioak gaizki erabiltzeagatik sor dezaketen edozein kalteren erantzule.
- **Jakinarazteko betebeharra.** Erabiltzaileek funtzionamendu akatsak, gabeziak edo araudi honetan ezarritakoa ez dela betetzen antzematen badute, instalazioetako langileei jakinarazi beharko diete.
  - **Diziplina-erregimena betetzeko beharra.** Betebeharrak betetzerakoan arduragabekeriak aritzea eta instalazioetako arau espezifikoetara jaramonik ez egiteak erabiltzaileari ekar diezaioketen zigorrak, besteak beste, honakoak debekatzea edo aldi baterako etetea ekar dezakete:
    - Zerbitzura edo instalaziora sartzea egoki iritzitako denboran, arau-haustearen larritasunaren arabera.
    - Jardueretan edo zerbitzuetan parte hartzea.
    - Kasu bakoitzerako ezarritakoak.

Arau-hausteak ondorengo zigorretakoren bat izango dute:

- Ohartarazpena.
- Erabiltzaile eskubidea aldi baterako kentzea-
- Erabiltzaile eskubideak betiko kentzea.

Arau-hausteak neurtzeko erantzukizuna aldatzen duten inguruabar astungarriak, aringarriak edo salbuesleak izango dira kontuan, betiere, inguruabar horietan Udalak erantzukizun penalak edo zibilak antzemandakoan dagozkion akzio judizialak hastearen kaltetan gabe.

Gaizki erabiltzeagatik izandako apurketak, material galerak edo beste edozein kalte, kasu bakoitzerako ezarritako diru kopuruarekin zigortu ahal izango da.

Araudi honetan ezarritako arauak ez betetzeak isuna ekar dezakeen arau-haustea da.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke:

- Arau-hauste arinak izango dira egiteagatik edo ez egiteagatik instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua eteten edo oztopatzen ez dutenak.
- Arau-hauste larriak dira kaltetutako instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua galarazten dutenak, eta instalazioa edo zerbitzua egunean bertan konpondu daitekeenean eta kalterik eragin ez zaionean hirugarren pertsoneri.
- Arau-hauste oso larriak dira kaltetutako instalazioaren edo zerbitzuaren funtzionamendua galarazten dutenak, eta instalazioa edo zerbitzua egunean bertan ezin daitekeenean konpondu edota kalteak eragin zaizkienean hirugarren pertsoneri.

Arau-haustearen larritasunaren arabera, dagozkion akzio juridikoak ere hartu ahal izango dira. Beraz, araudi honek ez du salbuesten indarrean dauden legeek ezarri ditzaketan beste prozedura batzuetatik.

Diziplina prozesuak ondorengo urratsak izango ditu:

- Udal kirol zerbitzuko langileek kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte, berehala aplikatuko direnak, eta portaera egokia ez duten pertsoneri ohartarazteko ahalmena izango dute, eta baita instalazioetatik kalera botatzeko ere.
- Gertatutako guztiarekin, udal kirol zerbitzuaren ardura duen kiroletako zinegotziak, instruktore den aldetik, kargu-orria egingo du, eta bertan jasoko dira ustezko arau-hausleari egozten zaizkion gertaerak.
- Udal kirol zerbitzuaren zinegotzi arduradunak kargu horien berri emango dio diziplina prozesuko interesdunari, eta alegazioak egiteko epea emango zaio, eta beharrezkoa balitz, entzunaldia ere eskainiko zaio.
- Zinegotziak, alegazioak entzunda, proposamen bat egingo dio Alkateari.
- Alkateak hartutako erabakia interesdunari eta udal kirol zerbitzuari jakinaraziko zaie.

**Arau-hausteak eta dagozkion zigorrak zuzen interpretatzeko, Gobernu lokala modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeko XI. Tituluan ezarritakoa jarraituko da.**



## **4) UDAL INSTALAZIOEN ERABILERA.**

### **1. UDAL KIROL INSTALAZIOETARAKO ERABILERA ARAU OROKORRAK.**

Instalazioetara sartzeko abonatu txartela aurkeztu beharko da, edo, bestela, sarrera ordaindu harreran. 6 urtetik beherakoek doan sartu ahal izango dira.

Instalazioko edozein langilek eska ditzake dokumentu horiek.

- Instalazioen egutegia eta ordutegia. Kirol instalazioetako ikasturteko egutegi eta ordutegiak Eskoriatzako Udalak ezarriko ditu, eta kirol instalazio bakoitzean egongo dira ikusgai. Manuel Muñoz kiroldegiko harreran eta udal webgunean ere kontsultatu ahal izango dira.
- Ikasturteko egutegi eta ordutegietatik kanpo edozein kirol jarduera edo berez kirol jarduera ez den ekintzaren bat antolatzeko, baimena eskatu beharko zaio idatziz Eskoriatzako Udalari, gutxienez, hilabete aurretik, eta bertan zehazki adierazi beharko da zer nolako jarduera mota antolatu nahi den. Baimena ematen bada, antolatzaileek beren gain hartuko dituzte ekintzaren antolaketatik erator daitezkeen erantzukizun administratibo, zergazko, laneko edo bestelako izaerakoak, eta baita beharrezkoak liratekeen baimenak lortzea, araudiak betetzea eta antolaketatik erator daitezkeen bestelako kontuak ere. Eskoriatzako Udalaren baimena izateak ez du esan nahi ekintzaren antolaketatik erator daitezkeen erantzukizun eta kalte ordainen arduradun egiten denik Udala. Erabilera mota bakoitza indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera ordainduko da.
- Publizitatea jartzea. Udal kirol instalazioetan publizitatea jartzeko Udal Kirol Zerbitzuarekin hitz egin behar da. Ezin da publizitaterik jarri baimenik gabe.
- Aldagelak. Kirol instalazioetako aldagelak eta bertako takilak, soilik eta bakarrik, kirol instalazioetako erabiltzaileek erabiltzeko izango dira 6 urtetik gora, pertsona bakoitzak inoren laguntzarik gabe erabili beharko du dagokion aldagela. Aldageletan, eraikineko beste aldageletan bezala, ezingo da higie pertsonalarekin lotutako jarduerarik egin: bizarra kendu, depilatu, azazkalak moztu...

- Balio handiko gauzak. Instalazioetara balio handiko gauzekin ez etortzea gomendatzen da, takiletan edo aldageletan uzten direnean ez baitaude inolako gordailu-kontraturen babespean, eta beraz, Udalak ez du inolako erantzukizunik izango.
- Ikusleak.- Udal kirol instalazioetan antolatutako ikuskizun edo lehiaketetan ikusleek egindako ekintzen erantzukizuna erakunde antolatzaileena izango da.

Arau honetan jaso gabeko salbuespen egoerak zehaztea Udalari dagokio. Arau hauek betetzen ez dituen instalazioetatik kanporatua izan daiteke berehala, eta abonatu txartela ere kendu ahal izango zaio arau hauste hori lehenago ere egin badu eta, Udal Kirol Zerbitzuaren iritziz, duen larritasunaren arabera.

## 2. UDAL PILOTALEKUA ERABILTZeko ARAUAK.

Araudi hau ondorengo pilotalekuetan aplikatzeko egin da:

- Joseba Iñurrategi udal pilotalekua.
  - Olaeta udal pilotalekua.
1. **Ordutegiak eta egutegiak.** Pilotalekuetako egutegia eta ordutegiak irailean ezarriko ditu Eskoriatzako udal kirol zerbitzuak. Horretarako, Udalak Eskoriatzako pilota taldearen eta pilotalekua erabiltzen duten partikularren iritzia jasoko du. Egutegia eta ordutegiak pilotalekuetako iragarki oholetan jarriko dira, eta Manuel Muñoz kiroldegiko harreran eta udal webgunean ere kontsultatu ahal izango dira.
  2. **Pilota kirol jarduerak.** Udal pilotalekuetan baimendutako kirol jarduera bakarrak euskal pilotaren aldaerak (erremontea izan ezik) eta frontenisa izango dira. Salbuespen gisa, eta beharrezkoa denean, Udalak beste kirol edo kultura jarduera batzuk baimendu ahal izango ditu.
  3. **Joseba Iñurrategi pilotalekuko aretoetako kirol jarduerak.** Joseba Iñurrategi pilotalekuko aretoetan (gimnasioan eta lehenengo eta bigarrenengo solairuetako aretoetan) egiten diren jarduera guztiak elkarte bakoitzak, kirol elkarte izan edo ez, Udalarekin urtero sinatutako hitzarmenak arautuko ditu.

Areto horien erabilera ikastetxeen, eskola kirolaren eta unibertsitateko kirolaren erabilera beharren menpe dago.

Gimnasioko materialen eta ekipamenduen erabilera okerra zigortuko da, gutxienez, sortutako kalteak ordaintzearekin.

Udal kirol zerbitzuak gimnasio nahi duen jarduerarako erabiltzeko eskubidea izango du, baina, betiere, behar besteko denboraz jakinarazita.

### **3. MANUEL MUÑOZ KIROLDEGIA ERABILTZEKO ARAUAK.**

**3.1. Erabilera anitzeko kantxa estalia.** Zurezko zorua babesteko, ezingo da kaleko oinetakorik erabili ez eta zoruari kalte egin diezaioketen neurritz kanpoko jarduerarik ere. Saskiak eta kantxa banatzeko gortinak baimendutako pertsonak erabili ahal izango dituzte bakarrik.

**3.2. Minifrontoia.** Minifrontoia bakarrik fronteniserako eta squasherako erabiliko da (banaka zein bikoteka jokatzeko).

**3.3. Igerileku guneko gimnasioa.** Zuzendutako jarduerarik ez dagoenean erabili ahal izango dute abonatuak, ikastetxeak, kirol elkarteko jokalariek beroketa saioak egiteko eta beste edozein arduradunek gimnasioa erabiltzeko beharra justifikatzen badu, betiere, bertako materiala zuzen erabiliko dela zainduz.

Gimnasia soilik kirol oinetakoekin eta jantziekin sartu ahal izango da, eta debekatuta dago gomazko zolarik ez duen oinetakorik erabiltzea.

Gimnasioren erabilera ikastaroen eta gainerako jardueren beharren menpe egongo da. Gimnasioaren erabilera librea izango da, betiere, udal kirol zerbitzuaren oniritzia jaso duen jarduerarik ez bada.

Gimnasioko materialen eta ekipamenduen erabilera okerra zigortuko da, gutxienez, sortutako kalteak ordaintzearekin.

Udal kirol zerbitzuak gimnasio nahi duen jarduerarako erabiltzeko eskubidea izango du, baina, betiere, behar besteko denboraz jakinarazita.

### **3.4. Fitness aretoa: tonifikazioa eta kardiobaskularra.**

- Ezingo da aretora sartu poltsarekin, motxilarekin edo kaleko arroparekin. Derrigorrezkoa da kirol-jantzia erabiltzea.



- 16 urtetik beherakoak ezingo dira muskulazio-aretoan sartu, ezta heldu batek lagunduta ere.
- Erabiltzaile guztiek eskuoihala eraman beharko dute izerdia kentzeko. Gainera, ariketak amaitutakoan, bertan eskura dauden paperezko eskuoihalak eta lanbasak erabili beharko dituzte jarlekuak, makinak eta zorua garbitzeko.
- Jende asko egonez gero, entrenamendu kardiobaskularrerako makinak erabiltzeko gehienezko denbora Udalak ezarritakoa izango da.
- Lan-kargen atsedendiak makinetatik kanpo egingo dira.
- Ariketa amaitutakoan derrigorrezkoa da erabilitako material ordenatuta uztea.
- Une oro jantzita izan beharko da, hau da, kamiseta erantzi gabe.
- Ezingo da baimenik gabe materialik atera aretotik.
- Udalak ezarritako ordutegian eta egunetan, kirol jarduera eta jarduera fisikoa egiteko aholkularitza eta orientazio zerbitzua egongo da. Zerbitzu horren helburua da pertsona bakoitzarentzat jarraibideak eta entrenamendu egokiak ematea. Jarraibide horiek ez dira inolaz ere goi errendimendura edo gorputz estatika helburuetara zuzenduta egongo. Proposatutako programa guztien helburua heziketa fisikoa eta osasuna izango da. Helburu horretarako, zerbitzuko ardura izango duen pertsona bat egongo da, pertsona bakoitzarentzako programa txartelak egingo dituen.
- Erabiltzaile bakoitzak bere txartelaren ardura izango du.
- Txartel horiek monitorearen orduetan egongo dira BAKARRIK erabilgarri.
- Erabiltzaileak txartela eraman ahal izango du berarekin.
- Programa horiek egiteko galdera sorta bat bete beharko da, eta horrek ez du inolaz ere mediku-azterketa ordezkatu. Proposatutako ariketak orientaziotzat baino ez dira hartuko. Norbera da bere ekintzen benetako arduradun bakarra.

**3.5. Gimnasio nagusia.** Lehenengo solairuko gimnasioaren erabilera ikastaroen eta bestelako jardueren beharren menpe egongo da. Gimnasioaren erabilera librea izango da abonatuentzat, betiere, udal kirol zerbitzuaren oniritzia jaso duen jarduerarik ez bada.

Gimnasia soilik kirol oinetakoekin eta jantziekin sartu ahal izango da, eta debekatuta dago gomazko zolarik ez duen oinetakorik erabiltzea.

Gimnasioko materialen eta ekipamenduen erabilera okerra zigortuko da, gutxienez, sortutako kalteak ordaintzarekin.

Udal kirol zerbitzuak gimnasio nahi duen jarduerarako erabiltzeko eskubidea izango du, baina, betiere, behar besteko denboraz jakinarazita.

**3.6. Sauna eta lurrin sauna.** Sauna biak, lehorra eta hezea, mistoak dira, eta derrigorrezkoa da bainu-jantzia eta eskuoihala erabiltzea. 16 urtetik beherakoek debekatuta dute sauna eta lurren sauna erabiltzea. Sauna bakoitzerako ezarritako irizpideak bete beharko dira, batez ere, bertan egoteko denborari eta horiek erabili aurretik eta ondoren dutxatu beharri buruzkoak. Era berean, garrantzitsua da sauna erabili ondorengo atsedean debora errespetatzea. Gehienezko aforoa 8 pertsonakoa da.

**3.7. Ur eremua.** Ur eremuari buruzko atal honek ondorengo esparruak hartzen ditu: Igerileku handia, igerileku txikia eta bertako berdegunea, eta horietako aldagelak eta igerilekuetarako sarbideak. Araudi honetan jaso ez diren puntuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak erabilera kolektiborako igerilekuetarako duen araudiarekin osatuko dira.

#### **3.7.1 UR EREMUKO ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK.**

- Aforoari buruzko informazioa izatea.
- Ur eremuko ordutegian sorosle eta botikin zerbitzua izatea uneoro.
- Sorosle zerbitzua izateaz gain, eragozpen fisikoak edo psikikoak dituzten erabiltzaileei laguntza emango zaie ur eremuko esparruetara sartzeko. Soroslearen laguntzarik gabe gelditzen direnean, pertsona horiek gai izan behar dira autonomia osoz aritzeko.

#### **3.7.2 UR EREMUKO ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK.**

- Soroslearen esanak jarraitzea. Erabiltzaileak ezingo dira igerilekura sartu soroslea bertan ez badago.
- Era berean, eta osasun neurriak betetzeko edo eremuko aforoa beteta izategatik, erabiltzailea ezingo da ur eremura sartu igerilekuko langileek horrela esandakoan.
- Beharrezkoa da bainu-txanoa erabiltzea igerileku guztietan, jolas-igerilekuan izan ezik.
- Edozein igerilekura sartu baino lehen derrigorrezkoa da dutxa hartzea, gutxienez, 15 segunduz.
- Erabat debekatuta dago behar fisiologikorik edo higienearen aurkako beste edozein ekintza egitea uretan (txua bota, mukiak kendu...). Bere behar fisiologikoak kontrolatu ezin dituztenak pixoihala erabili beharko dute.

- Debekatuta dago igerileku bazterrean korrika egitea edo jolastea, jendea uretara botatzea, elkarri bultzatzea eta erabiltzaileei traba edo kalte egin diezaioketen beste edozein ekintza.
- Ezingo da uretara salto egin edozein lekutatik, horrela ez badu aurrez baimendu ikastaroren bateko irakasleak.
- Debekatuta dago jolasteko puzgarriak, baloiak, hegatsak, piraguak, urpekaritza betaurrekoak eta abar erabiltzea. Igerilekuan erabili daitekeen materiala sorosleak baimenduta egon beharko da beti. Egoerak horrela eskatzen badu, sorosleak material hori erabiltzaileari kendu ahal izango dio, gorde, eta erabiltzaileak instalazioa utzi behar duenean, itzuli. Salbuespen dira Udalak baimendutako erabiltzaile eta jarduera ohiz kanpokoak, eta sorosleak, kasuan kasuko, taulak, pullboyak eta igeriketa-palak laga ahal izango die igeriketa jarraian dabiltzan helduei, edo beraien materiala erabiltzen laga, betiere, kaleen erabilera egokirako oztopo ez badira.
- Umeentzako igeriketa ikastaroetan umea saioa utzi eta saioa amaitutakoan jaso beharko da.
- Barruko igerilekuan ezingo da kaleko jantziekin egon, nahiz eta txankletak izan.
- 2-4 urte arteko umeentzako igeriketa ikastaroetan ume bakoitzarekin arduradun bat sartu beharko da uretara.

### **3.7.3. ADINA.**

Igerileku guztietara sartzeko gutxieneko adina 8 urte da, betiere, erabiltzailea ur eremuetan autonomia osoz moldatzeko gai baldin bada. Adin horretatik beherako erabiltzaileak, igerilekura sartu ahal izateko, adin nagusiko pertsona batez lagunduta eta bere ardurapean izan beharko dira derrigorrez.

### **3.7.4. JANZKERA**

- Bainujantzia derrigorrezkoa da. Baimenduta dago toplessa edo monobikinia.
- Ur eremuan oinetako bereziak erabiltzea gomendatzen da, nahiz eta oinutsik ere ibili ahal den. Oinetako berezi bezala ez dira onartuko “latexezko galtzerdiak”, ez bada kasu berezietan osasun arrazoiengatik.
- Igerilekurako betaurreko bereziak bakarrik onartuko dira, eta debekatuta daude kristalezko betaurrekoak. Debekatuta dago ur eremura kaleko jantziez eta oinetakoez sartzea.

### **3.7.5. SOROSLEA.**

- Soroslearen funtzioak dira pertsonen segurtasunerako neurriak hartzea, arrisku egoeren aurrean babes neurriak hartzea eta istripuren bat izanez gero, lehen laguntza ematea. Horretarako, soroslea izango da arauak jakinarazi eta errespetaraziko duen lehenengo pertsona.
- Erabiltzailea guztiek jarraitu beharko dute, derrigorrez, soroslearen esanak. Erabiltzailearen batek ez baditu betetzen soroslearen esanak, soroslea derrigortuta dago horren berri Udalari ematera. Bitartean, eta bestelako neurriak hartu artean, arau-haustea egin duen erabiltzailea izango da bere portaera okerrak eragin dezakeen kalte-ordainen erantzule bakarra. Kasu horietan, sorosleari ezingo zaio inoiz erantzukizunik eskatu ustezko axolagabekeriagatik edo arduragabekeriagatik.
- Sorosleak ahalmena izango du araudi honetan jaso gabeko beste neurri mota batzuk hartzeko osasun eta segurtasun baldintzak bermatzeko eta instalazioen erabilpen zuzenaren mesedetan. Horrelakoetan, egoeraren berri eta hartutako aparteko neurrien berri eman beharko dizkio Udalari.
- Era berean, eta erregelamendua betetzeko helburuarekin, sorosleak kautelazko neurriak hartu ahal izango ditu zenbait erabiltzaileen aurrean.

### **3.7.6 IGERILEKUAEN ETA UR EREMUAREN GEHIENEZKO AFOROAK.**

- Ur eremua neguan ( $1 \text{ px}/3 \text{ m}^2$ ) = 84 pertsona.
- Igerilekuaren kanpoaldea udan = 104 pertsona.

### **3.7.7. IGERIKETA IGERILEKUKO ERABILERA ARAU ESPEZIFIKOAK**

- Igerileku handia **igeriketa jarraiturako erabiltzen da**. Hala ere, noizbehinka, eta kirol zerbitzuaren beharren arabera, beste jarduera batzuk egin ahal izango dira.
- Igeriketa zirkulazio arauak.
  - **Igeriketa noranzkoak.** Kale batean pertsona bat baino gehiago baldin badago igerian, eskuinetik joan eta ezkerretik etorri beharko da.
  - Igeri egiterakoan beste norbait aurreratu ahal izango da, betiere, aurreraterakoan hirugarren bat ez baldin bada kaltetzen. Igerian ari denak besteren bat aurreratu nahi badu eta ez bada hirugarrenari kalterik ez egiteko baldintza hori betetzen, igerilekuaren hormaraino joan beharko da bere atzetik, eta ondoren, aurreratu.
- Kale motak:

- Kale urdina, **igeriketa motelerako**. Pertsona bakoitzaren ahalmenaren arabera kalea da, motel igeri egiten dutenek eta igeriketa materialik erabili behar ez dutenek erabiltzekoa.
- Kale horia, **igeriketa azkarrerako**. Erabiltzaile bakoitzaren ahalmenaren arabera kalea, azkar igeri egiten dutenek erabiltzekoa. Igeriketa azkarreko kaleetan palak eta hegatsak erabil daitezke.
- Kale gorria, **ikastaro eta entrenamenduetarako**. Kale horiek behin-behinekoak dira eta ordutegi eta erabiltzaile mugatuak dituzte.
- Kale berdea, **bainu librerako eta jolaserako**.

Kale gorriak eta berdeak behin-behinekoak dira. Egoeraren eta beharren arabera, kale hau luze bat osorik egin ezin dutenentzat, jolaserako eta igerilekuan oinaz ibili nahi dutenentzako da.

Sorosleak kalez aldatu ahal izango ditu erabiltzaileak bakoitzaren ezaugarrien arabera, horien onurarako eta igerilekua egoki erabili ahal izateko.

### **3.7.8. IGERIAN EGITEN ERAKUSTEKO IGERILEKUAREN ERABILERA ARAU ESPEZIFIKOAK**

- Igerilekua igerian egiten ikasteko, ur gimnasiarako eta igeriketa terapeutikorako erabiliko da. Hala ere, noizbehinka, eta kirol zerbitzuaren beharren arabera, beste jarduera batzuk baimendu ahal izango dira.
- Antolatutako ekintzarik ez dagoenean, igerilekua libre erabili ahal izango da. Ekintzaren bat dagoenean, igerilekua partekatu beharko da.

### **3.7.9 IGERILEKUKO KANPOALDEKO BERDEGUNEA ERABILTZEKO ARAU ESPEZIFIKOAK.**

- Udan erabiltzeko pentsatutako instalazioa da, eta bere helburua erabiltzaileen aisiarako eta atsedenerako espazio bat eskaintzea da. Baloiekin, pilotekin, disko hegalariekin, kometekin eta gainerako jolas-tresna higikorrekin aritzeko gune mugatu bat dago, eta hortik kanpo debekatuta dago horrelakoekin aritzea. Inolaz ere ez da baimenduko belarra kaltetu dezakeen ekintzarik.
- Irrati eta musika aparatuek ezingo dute bolumen gogaikarririk gainditu, eta kiroldegiko langileek horrela eskatuz gero, itzali egin beharko dira.
- Berdegunean jan ahal izango da, betiere, janariak prestatzeko leku berezirik behar ez bada.

- Erabiltzaileek beraien hamakak, etzaulkiak eta itzalkinak erabili ahal izango dituzte. Norberaren erantzukizuna da horiek ekarri eta eramatea, ezingo baitira gorde Manuel Muñoz kiroldegian.
- Ezingo da udako norberaren aulki eta mahairik ekarri.
- Kanpoko komunak ez dira aldagelak, beraz, ez da onartuko beste erabilera batzuetarako erabiltzerik.

## 5) UDAL KIROL ZERBITZUAK.

UDAL KIROL ZERBITZUAK Udalak zuzenean eskaini eta kudeatutako kirol jarduerak eta baliabideek osatzen dute.

**1 ABONUAK.** Eskoriatzako Udalaren aukerako zerbitzuak Eskoriatzako Kirol Abonuetan (aurrerantzean, abonua) gauzatzen dira. Abonua, indarrean dagoen araudi fiskalaren arabera, kirol instalazioetara sartzea, horiek erabiltzea eta hainbat kirol jarduera egitea ahalbidetzen duten zerbitzuak dira.

Alta emateko abonua-fitxa osorik bete eta sinatu egin beharko da, eta Manuel Muñoz kiroldegiko harrera bulegoan aurkeztu.

Adingabekoen edo egoera berezia medio beste pertsona baten tutoretzapean daudenen kasuan, titularraren ordezkari den pertsonak sinatu eta eraman beharko du. Horretarako, dagokion eremua bete beharko du izena emateko fitxan.

Fitxa betetzen duen pertsonak inskripzio-datuetan egon daitezkeen aldaketen berri eman beharko du ezinbestean.

Instalazioetarako sarbidea modu egokian kontrolatzeko, abonatuak nahitaez erabili beharko ditu Udalak proposatutako sarbide-kontrolerako sistemak, eta abonatu txartela ekarri beharko du beti.

Abonatuak izateak araudi hau onartzea dakar.

Abonua kobratzea eta baja hartzea indarrean dauden ordenantza fiskaletan jasotako moduan egingo dira.

- 2 JARDUERAK ETA IKASTAROAK.** Udalak, bere zerbitzuen artean, jarduerak eta ikastaroak eskaintzen ditu.

**JARDUERA:** erabiltzaileari aurrez finkatutako epeetan eskaintzen zaizkion ariketa fisiko jakin batzuk dira, kirol-monitorearen esanetara egiten direnak. Ariketa fisikoaren bidez osasuna sustatzea da helburu nagusia. Jarduera guztietan matrikula ordaindu behar da.

**IKASTAROA:** irakaskuntzako eta ikaskuntzako jarduera da, jarduera jakin batean trebatzeko eskaintzen zaiona erabiltzaileari epe mugatu eta zehatz batean. Helburu nagusia irakastea du. Ikastaro guztietan ez da matrikula ordaindu behar.

Eskaintako plazak baino eskari gehiago badago zozketa egingo da.

Jardueretan eta ikastaroetan izena emateak, berez, ez dakar istripu-asegururik edo kirol-lesioen ingurukorik izaterik.

- 2.1 **IZENA EMATEA.** Dagokion izen emate orria betetzea. Pertsona bakoitzak orri bakarra bete ahal izango du bere izen/abizenekin. Pertsona bat ardura daiteke beste batek betetako eta sinatutako orriaz (18 urtetik beherako pertsonak kontu korronteko titularraren sinadura beharko dute). Izena emateko orrian, eskaintako jarduera motaren arabera, aukera bat edo gehiago egongo dira izena emateko.
- 2.2 **PLAZAK EMATEA** Eskatutako aukeran plazarik badago, izena ematea automatikoki egingo da. Plazarik egokitu ez zaion pertsona automatikoki jarriko da itxaron zerrendan. Udal Kirol Zerbitzuak ez die inolako abisurik egingo jarduera batean plaza lortu ez dutenei, ez eta itxaron zerrenda batetik edo zozketatik kanpo gelditu direnei ere. Bakoitzak hartu beharko du bere egoeraren berri izateko ardura.
- 2.3 **PLAZA KOPURUA.** Udal Kirol Zerbitzuak gutxieneko eta gehienezko parte hartzaile kopurua jarriko du jarduera bakoitzerako.
- 2.4 **IKASTAROAREN/JARDUERAREN HASIERA.** Ikastaroa/jarduera hasi behar duten pertsonak dagozkien egun eta orduetan egon beharko dira dagokien lekuan. Edozein aldaketa egin nahi izanez gero, eskaera idatziz egin beharko da eta Udalaren baimena lortu beharko du. Jardueretako parte hartzen dutenek erantzukizun zibileko asegurua izango dute.

- 2.5 ITXARON ZERRENDAK. Plazak utzik gelditu ahala telefonoz jakinaraziko zaie itxaron zerrendako pertsonari. 24 orduko epean erantzuten ez duenak txanda galduko du eta zerrendako hurrengo pertsonari deituko zaio plaza hori eskaintzeko. Itxaron zerrendan egonik eskaintzen zaion plaza atzera botatzen duena zerrenda horretatik kanpo geldituko da.
- 2.6 PLAZA LIBREAK. Libre gelditzen diren plazak iritsiera ordenan eskainiko dira Udal Kirol Zerbitzuak ezarritako egunetik aurrera. Plaza libre batean izena emateko ikastaro/jarduerako izen emate orria bete beharko da. Plaza emandakoan, nahiz eta jarduera hasita egon, ikastaro osoa ordaindu beharko da. Pertsona batek ezingo du 3 lagun baino gehiago inskribatu.
- 2.7 KOBRAZKEKO ERA ETA JARDUERA ETA IKASTAROETAN BAJA EMATEKO ESKAERA. Une horretan indarrean dauden ordenantza fiskaletan jasotako moduan egingo da: helbideratutako ordainketa edo bankuko abonu-agiria.
- 2.8 IKASTAROEN/JARDUEREN ZERBITZUA ETETEN DENEAN. Ezusteko arrazoiengatik etenez gero ikastaro eta jarduera zerbitzua, Udal Kirol Zerbitzuak beste aukeraren bat eskainiko du. Udal Kirol Zerbitzuak zerbitzua eteteko arrazoen berri eman beharko du lehenbailehen.
- 2.9 HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA: . Jarduera taldeetan egon daitezkeen hizkuntza egoerak egoki kudeatu ahal izateko, hiru hizkuntza egoeren arabera funtzionatuko da:

1. Ikastaroko partaide guztiek euskara ulertzen dutenean, jarduera hori euskara hutsean egingo da.

2. Ikastaroko partaideen erdiek baino gehiagok euskara ulertzen dutenean, jarduera hori nagusiki euskaraz egingo da. Beharrezkoa balitz, monitoreak laburpenak egingo ditu erdaraz edo banakako azalpenak eman horren beharra dutenei.

3. Ikastaroko partaideen erdiak baino gutxiagok ulertzen dutenean euskara, jarduera hori nagusiki erdaraz egingo da, eta monitoreak euskaraz esango ditu agurrak, zenbakiak, animo hitzak eta antzekoak. Gainera, euskaraz egingo die euskara ulertzen dutenei.

### **3 PISTAK, PILOTALEKUAK ETA KANTXAK ALOKATU ETA ERRESERBATZEA.**

Pista, pilotaleku eta kantxen alokairua eta erreserba indarrean dauden udal ordenantzetan zehaztuko da. Era berean, ordenantza horietan ezarritako dira alokairu eta erreserba tasak eta horiek ordaintzeko era.



Alokatutako edo erreserbatutako instalazioak erabiltzerakoan jarduera horrekin lotuta izan daitezkeen edozein ekintza bandalikok eta baita errespetu faltak eta portaera desegokiek ekipoari eta bere kideei zigorrek ezartzea ekar ditzakete, araudi honetako 3. puntuan, erabiltzaileen betebeharrenetan (“Diziplina-erregimena betetzeko beharra”) jasotzen den bezala.

Instalazioen erabilera amaitutakoan, libre utzi beharko dira udal programazioak jarraitu ahal izateko.

### **3.1. PARTIKULARREK INSTALAZIOAK ERRESERBATZEKO PROZEDURA ARAUAK.**

- Erreserbak Udal Kirol Zerbitzuak instalazio bakoitzerako ezarritako denborarako egingo dira.
- Esleipenerako erabakitako erreserba kopurua baino eskaera gehiago baldin badago, zozketa egingo da. Horretarako, Udal instalazioa baten erreserban parte hartu nahi duenak izena eman behako du udaletxean.
- Pertsona bakoitzak orri bakarra bete ahal izango du bere izen/abizenekin.
- Pertsona bat ardura daiteke beste batek betetako eta sinatutako orriaz (18 urtetik beherako pertsonak kontu korronteko titularren sinadura beharko dute).
- Izena ematen duen bakoitzak bi erreserba eskaera egin ahal izango ditu.
- Bi aldiz edo gehiagotan izena ematen duena zozketatik kanpo geldituko da.
- Izena emandako bakoitzak zenbaki bat izango du zozketan.
- Izena emateko epea egongo da zozketan parte hartzeko.
- Zozketa baino lehen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira. Zerrenda horietan akatsen bat egongo balitz, 24 orduko epea emango da akatsa zuzentzeko. Erreklamaziorik ez badago, akatsik ez dagoela ulertuko da, izen ematea behin betikotzat joko da eta ezingo da inolako aldaketarik egin.
- Beharrezkoa balitz, erreserbak zozketatzeko eguna eta ordua jarriko da.
- Erreserbak esleitzerakoan lehentasuna izango dute kiroldegiko abonatuak.
- Izena emandako guztiekin zerrenda bat egingo da. Zozketan zenbaki bat aterako da, eta zenbaki horretatik aurrera joango dira eskaerak betetzen.
- Eskatutako aukeran plazarik badago, automatikoki esleituko da.
- Lehenengo aukerarako plazarik ez badago, baina, bai bigarrenarako, automatikoki esleituko da. Gainera, ez da eskubiderik izango itxaron zerrendan egoteko.

- Inolako aukerarik egokitu ez zaion pertsona, itxaron zerrendan jarriko da automatikoki bere lehenengo aukerarako.
- Udalak ez die inolako abisurik emango jardueran plazarik lortu ez dutenei. Ezta itxaron zerrendatik kanpo edo zozketatik kanpo gelditu direnei ere. Bakoitzak hartu beharko du bere egoeraren berri izateko ardura.
- Bi aldiz edo gehiagotan izena ematen duena zozketatik kanpo geldituko da. Libre gelditzen diren plazetan izena eman ahal izango dute.
- Erreserba eginda duten pertsonak zozketaren emaitzaren arabera dagokien egun eta orduan joan beharko dira erreserbatutako instalaziora. Edozein aldaketa egin nahi izanez gero, eskaera idatziz egin beharko da eta Udalaren baimena lortu beharko du.
- Erreserbetan bajak izanez gero, horiek gertatu ahala telefonoz emango zaie horren berri itxaron zerrendan dauden pertsonari. 48 orduko epean erantzuten ez duenak txanda galduko du, eta zerrendako hurrengo pertsonari deituko zaio plaza hori eskaintzeko. Eskainitako erreserbari uko eginez gero, itxaron zerrendatik kanpo geldituko da.
- Libre gelditzen diren erreserbak iritsiera ordena zorrotz jarraituta esleituko dira Udalak ezarritako egunetik aurrera. Bi aldiz edo gehiagotan izena emateagatik zozketatik kanpo gelditu direnak plaza libreetan edo itxaron zerrendetan eman ahal izango dute izena.
- Erreserbak kobratzeko eta baja eskatzeko erak une bakoitzean indarrean dauden ordenantza fiskaletan jasotakoak izango dira, baina, arau orokor gisa, kuotak hilaren bukaeran kobratuko dira erabiltzaile bakoitzak emandako kontu zenbakitik. Erreserbatutako instalazioa ez erabiltzeak ez du salbuetsiko instalazio horretarako ezarritako prezio publikoa ordaintzetik.
- Ezusteko arrazoiengatik etengo balitz erreserba, zerbitzua eteteko arrazoiari berri eman beharko du Udalak lehenbailehen.
- Udalak zehaztuko du, kasu bakoitzean, indarrean dauden hizkuntza ofizialen erabilera karteletan, bozgorailuetatik, propagandan...

### **3.2. ERAKUNDEEK INSTALAZIOAK ERRESERBATZEKO PROZEDURA ARAUAK.**

- Instalazioak eta ordutegiak lagatzeko, eta kontuan izanik dagoen eskari handia eta ezinezkoa dela eskaera guztiak erantzutea, Udal Kirol Zerbitzuak esandakoa jarraituko da.

- Erreserbatutako instalazio bat ez bada gutxienez hilean 3 egunetan (jarraian izan edo ez) erabiltzen, eta ez bada justifikatzen, erreserba bertan behera utzi ahal izango da.
- Udalak, bere beharren arabera, programazioa aldatzeko eskubidea izango du.
- Entrenatzailea edo ordezkari lanak egiten dituen arduratuko da materialaren eta ekipamenduen erabiliera onaz, eta baita, jarduera bukatutakoan, kirolguneak eta aldagelak berriro erabiltzeko moduan uzteaz ere.
- Segurtasuna eta dauden araudiak bete daitezela bermatzeko beharrezko dokumentuak aurkeztea eskatuko du Udalak. Eskatutako dokumentazio osoa aurkezten ez duten erakundeek ezingo dituzte beraien jarduerak kirol instalazioetan egin.
- Udalak zehaztuko du, kasu bakoitzean, indarrean dauden hizkuntza ofizialen erabilera karteletan, bozgorailuetatik, propagandan...
- Eskaera motak:

#### **Denboraldi bateko entrenamenduak, saioak edo eskolak.**

- ✓ Udal instalazioak eta lankidetzak hitzarmenean sartzen direnak erabiltzeko eskaerak idatziz egin behar dira.
- ✓ Eskaerak ekainaren 15etik uztailaren 31era arte entregatu beharko dira. Irailaren 15etik aurrera instalazioen erabilera taula argitaratuko da bakoitzari dagozkion egun, ordu eta erabili beharreko instalazioekin.
- ✓ Hortik aurrera jasotako eskaerak libre dauden egun, ordu eta instalazioetara egokitu beharko dira.
- ✓ Hitzarmenez onartutako eskarien kasuan, eta erreserba baliokotzat jotzeko, fidantza bezala ezarritako dirua jarri beharko du eskatzaileak. Fidantza hori udal kirol instalazioak erabiltzeko aldia amaitutakoan itzuliko da eskatutako baldintzak egoki bete baldin badira.

#### **Kirol lehiaketa ohikoak eta erregularrak.**

- ✓ Udal instalazioetan edo hitzartutakoetan lehiaketako partidak jokatzeko eskatzen duten taldeek beraien lehiaketa egutegia aurkeztu beharko dute derrigorrez.
- ✓ Erakunde batek, edozein arrazoiengatik, bere partiden ordutegia aldatzea erabakiko balu edo horretara behartuta egongo balitz, Udal Kirol Zerbitzuarekin kontsultatu beharko du, eta aldatzerik badago, partida egunaren aurreko asteazkena baino lehen jakinarazi beharko du idatziz. Ez da onartuko

telefonoz edo idatziz ez den beste bide batetik Udal Kirol Zerbitzura zuzendutako aldaketa eskaerarik.

- ✓ Araudi honetan ezarritakoaz gain, kirol instalazioetan lehiaketa, ikuskizun, kirol ekitaldi edo beste izaera bateko ekitaldiren bat eginez gero, taldeek edo erakunde antolatzaileek behartuta egongo dira legedi orokorrak edo arlokakoak ekitaldi horiek egiteko arautzen eta agintzen duena betetzera.

### **Noizbehinkako ekitaldi kulturalak, kirolaz kanpokoak edo ez ohiko kirol ikuskizunak.**

Kultur ekitaldietarako, kirolaz kanpoko ekitaldietarako edo ez ohiko kirol ikuskizunetarako instalazioak erabiltzeko eskubideak, betebeharrak eta baldintzak arautzea da titulu honen helburua.

Egunero egin ohi diren kirol jardueratik kanpoko jarduerak egiteko instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute araudi hau bete eta erabilera horregatik dagokion prezioa ordaintzen duten pertsona fisiko edo juridiko, kirol elkarte eta bestelako erakunde guztiek.

Kirolaz kanpoko ekitaldietarako alokatu ahal izateko instalazioak honako prozedura hau jarraituko da:

- Ekitaldia baino gutxienez 30 egun lehenago eskaera idatzia egitea. Bertan, ekitaldiaren helburu nagusia jarri beharko da.
- Udal Kirol Zerbitzuak ahalik eta lasterren erantzungo du.
- Eskaria onartuz gero, eta erreserba baliokotzat jotzeko, eskatzaileak 5 eguneko epea izango du fidantza bezala ezarritako dirua jartzeko. Fidantzarik ez bada jarri epe horretan, erreserba baliogabe geldituko da, eta beraz, egun hori libre. Fidantza hori ez da itzuliko eskatzaileak ekitaldia bertan behera uzten badu. Ekitaldia amaituta eta instalazioan kalterik ez dela izan ikusita, fidantza itzuliko da.
- Ekitaldiaren egunaren baino 15 egun lehenago, sustatzaileak edo eskatzaileak Udal Kirol Zerbitzura jo beharko du ondorengo dokumentazioa aurkeztera:

- Instalazioaren alokairu prezio publikoa transferentzia bidez ordaindu izanaren agiria.
  - Ekitaldirako berariaz kontratatutako erantzukizun zibileko poliza eta poliza hori ordaindu izana justifikatzeko agiria.
  - Erabiliko den instalazioaren ebakuazio plana.
- Ekitaldiaren egunaren baino bost egun lehenago, sustatzaileak edo eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak emandako baimenaren kopia aurkeztu beharko du Eskoriatzako Udalean eta bilera tekniko bat izan dagokion Udal arduradunarekin.
- Instalazioa lagatzeko 2 modu egongo dira:
- a) Egun erdiko alokairua.
  - b) Egun osoko alokairua.
- Modalitate bakoitzak tarifa bat izango du, eta egun erdiko alokairurako ezarritako ordutegia gaindituz gero, sustatzaileak egun osoko alokairuari dagokion tarifa ordaindu beharko dio Udalari.
- Ekitaldia amaitutakoan, instalazioa erabat libre eta garbitzeko prest egon beharko da.
- Instalazioan egin beharreko ekitaldirako beharrezko baimenak eta lizentziak tramitatzea eta ordaintzea, eta egile eskubideak eta estatuko, probintziako eta udal zerga guztiak ordaintzea ekitaldiaren sustatzailearen kontura izango dira. Udalaren kontura izango dira argindarra, garbitasuna eta instalazioko langileek lagapen denborak egindako orduak ordaintzea. Ekitaldiak sortutako beste edozein gastu (publizitatea, zaintzarako langileak, leihatila eta abar) sustatzailearen edo eskatzailearen kontura izango dira.
- Udal Kirol Zerbitzuak bere langileen artetik arduradun bat izendatuko du ekitaldirako. Bere lana izango da ekitaldia egiteko beharrezko diren atak irekitzea eta ixtea, eta sustatzailearen esanetara egongo da ekitaldian sor daitezkeen larrialdiak konpontzeko beharrezko laguntza emateko.

- Sustatzailea izango da kontratatutako ekitaldiaren antolaketan aktiboki parte hartzen duten guztien ordenaren eta portaeraren erantzule, eta baita ekitaldira etorritako jendearen erantzule ere.
- Sustatzaileak ordaindu beharko ditu instalazioetan gerta daitezkeen kalteak.
- Sustatzaileak iragarki pankartak eta kartelak jarriz gero, ekitaldia amaitutakoan kendu beharko ditu.
- Ezingo da instalazio bakoitzarentzat ezarritako aforoa baino ikusle gehiago sartu.
- Udal Kirol Zerbitzuak ahalmena izango du bere instalazioak ez lagatzeko, lagapenarekin lehendik egindako beste lagapen bat kaltetzen bada.

## **6) XEDAPEN GEHIGARRIAK.**

Udalak eskubidea du, instalazioak zuzen erabiltzeko helburuarekin, araudi honetan ezarritakoa argitzeko, aldatzeko edo garatzeko xedapenak eta erabakiak hartzeko

Araudi honetan jasota ez dauden kasuak udal organo eskudunak konponduko ditu.

Araudi honen aldaketak edo indargabetzea, eta baita urte bakoitzeko prezio publikoak ere, ahalik eta jende gehienari iristeko moduan argitaratuko dira.

## **7) XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta geratzen da araudi honi kontra egiten dion maila bereko edo beheragoko edozein araudi edo udal xedapen.

## **8) AZKEN XEDAPENAK.**

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean.

## **9) ERREKLAMAZIO ORRIAK.**

Udal Kirol Zerbitzuko instalazioen erabiltzaileen eskubideak bermatzeko erreklamazio orriak egongo dira eskuragarri. Edozein erabiltzailek erabili ahal izango ditu orriak instalazio horietako zerbitzuak oker funtzionatzen dutela ikusitakoan. Orria betetzeko abonatu edo NAN zenbakia, izena eta bi abizen, helbidea eta telefono zenbakia jarri beharko dira. Erreklamaziogilea erreklamazioaren frogagiriarekin geldituko da eta erantzungo zaio. Erantzuna idatziz edo telefonoz egingo da.

Dagokion erreklamazioa egin ahal izateko, erabiltzaileek identifikatzeko eska diezaiekete edozein momentutan instalazioko langileei edo arduradunei.

**Eskoriatzan, 2015eko otsailaren 18an.-Alkatea.**